

Poesia

JUAN RAMON MADARIAGA


Bufalo guztiak

BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA
NAZIOARTEKO XV. POESIA LEHIAKETA



erein

BUFALO GUZTIAK



Lan hau erabiltzeko unean kontuan hartuko dira titularrek ezarritako baldintzak.
Horien berri jakiteko jo ezazu EKKIra, egile eskubideen euskal agentziara (www.ekki.eus)

Bilboko Udalak eta Blas de Otero Fundazioak antolatzen duten Blas de Otero - Ángela Figuera
XV. Poesia Saria irabazi du liburu honek.

1. argitalpena: 2023ko urrian.

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

Juan Ramon Madariaga

© Juan Ramon Madariaga

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-908-6

L.G.: D 736-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Juan Ramon Madariaga
BUFALO GUZTIAK

BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA
XV. POESIA LEHIAKETA

*I have looked upon those brilliant creatures,
And now my heart is sore.
All's changed since I, hearing at twilight,
The first time on this shore,
The bell-beat of their wings
above my head.*

William Butler YEATS

*Dena nahiko nahasia izan zen,
sotila eta potentziala hasieran,
ikaragarria eta erreala gero.
Pixka bat denetarik jazo zen,
denak hartu zuen denaren forma
eta denetarik zabaldu zen denean.*

Iñigo ASTIZ

*Ez daukazu gezurrak esateko eskubiderik.
Idatz ezazu zure bertso bakoitza
despedida bat balitz bezala.*

Blaga DIMITROVA

PRESENTE EZINEZKOA

Beti harritu nau guretako inportanteak diren pertsonak oharkabea pasatzea beste batzuei. Benetan gogoratu nahi ditugunak ezin ditugula inolaz ere ahaztu. Hobe dela ez jakitea zer galdu dugun.

Castillo SUAREZ

BEROAREN OINARRIA

Besarkadak ur azalean balantzan itzuli egiten diren
afrontuak dira.

Besarkada hura imajinarioan gorpuzten da.
Euria zegoen, kanpoan.
Zeu bustita, neu ez.
Egunkariaren orrialdeetan baikortasunari eginiko oharrak.
Lerdokeriak guztiak, bozkarioaren arokoak.

Tartean begiradaren behar ezinbestekoak.

Denbora pasatu zenean biok altxatu ginen batera.
Orduan besarkatu ninduzun, alde egiten ez uzteko moduan.
Tinko.

Hantxe nago oraindik.
Begiak itxiz gero, hantxe nago.

Eta beroa ematen didazu.

EZ DIREN KRISTALAK

Kristalak apurtu dira, oraindik daude oinpeetan,
ez moztu, eta segi batzen.
Urrunegi doa abiadura, dena hain likido, txuaren forman.
Ihesaldi bakoitzean pistak uzten dituzu zure bidean,
ez zoaz inora eta mugitzen zara zirkuluetan.

Ahantzuraren presio atmosferikoak kalte egiten du,
lorategiko barraskiloek badakite eta bizitzeko ere beldur dira.
Gure intentsitateetara berandu heltzen zara,
karretera ahaztuetatik gidatzen duzun bitartean
gasolio bakarra duzulako malkoetan.

Doluetarako euritakoak zulatuta dituzu,
denak ilunera jotzen du,
argiak ez baitu sinadurarik jarri nahi.

Badakizu zertaz ari naizen,
gu izan ez garen lekuaz.

IRLA BAT

Beste birika bat atera dut armairutik euripean arnasteko.
Eskuetan minen eraztunak jarri ditut ohitzeko.
Labeetako sugarrak begiratu ahal ditut itsutu gabe.
Galderak gustatzen zaizkit eta sinpletasuna erantzunean.
Odola usaintzean arratsaldeetako mailukiak ditut buruan.
Zaratarik gabe pasatzen dira kurloiak adar batetik bestera.
Etorkizuna gero eta hutsalagoa delako jaten ditut musuak.
Denboraren neurria ausentzia borobiletan neurtzen dut.
Zirkuluaren zuloak disparo batek egin dit.
Gurina ogi beroan bezala doaz egunak.

Irla bat da bizitza.

ALDAEREN IZAKIA

Haragia, hezurak, zainak, epidermis, isurkiak.

Hori guztia banaiz.

Materia akastuna, dispertsoa, hegakor,
arima atrofiaturik, ilun, hebain,
lau angeludun forma, labirinto suntsitzailea.

Hori guztia banaiz.

Kristalezko antilopea naiz,
eta konturatu gabe bihurtzen nauzun planeta.

Bizi-une desitxuratua,
aldaketa kimiko oinarrizkoa,
amets baten imintzioa.

Baina orain bizitzak hizkuntza bat exijitzen du,
isiltasuna deszifratzeko kode berriak,
eta agian, intuizioa edo inertzia, erroetara bueltatzea.

Kontu batzuk ez ulertzeko eginak dira.

AHANZTURARIK EZ

Hitz batek, begirada batek,
agian aurpegi batek eraso digu
beste espazio batetik, tanpez.
Batzuetan inarrosten,
betetzen,
habitatzen,
kolpatzen gaituen keinu,
une,
egoera baten irudiak.
Orduan gomutak datoz.
Ausentzia presente dago.
Oroimena baldin badago,
modu batean edo bestean,
zerbait edo norbait joan delako da.

Faltan botatzea ez da falta hori sentitzea solik
egiten duguna egiten dugula,
distrakzioa egon daitekeela baieztatzea da,
baina ez ahanztura.

HARAGI FRESKOA

Aizkora hartu nuen arratsaldeko sua egiteko.
Aizkora zorrotza.
Egurra hartu nuen arratsaldeko sua egiteko.
Egur lehorra.

Txikitán etxeko sua pizten nuen nik zurezko zaflak kaskaturik.
Aizkora, trebea.
Aizkora espezialista, ni.

Oinarekin zapaldu nuen adar sikua,
eta metala buru gainean altxatu.
Dizdizari, sarkor oso.

Bi metalen arteko kontrajotzea entzun nuen,
eta talka-uhinagatik beste kolpe bat sentitu ere.

Oinean linea gorria inprimatu zen.
Hamaika zentimetro.

Kirurgialariak atzamarra sartu zuen barruan
dena bere tokian zegoela kontrolatzeko.
Ni begira. Hamaika puntu.

Nire haragia zabalik, atzamarra barruan.

Aizkoragatik badakit, baina, zauririk larrienek
ez dutela haragia zabaltzen.

XV. EDIZIOAREN AKTA

Gaur, 2022ko azaroaren 14an, 13:00etan, Blas de Otero - Ángela Figuera Poesia Lehiaketaren XV. edizioaren epaimahaia bildu da deialdiaren euskarazko modalitateko saria emateko, halaxe baitago ezarrita 2021eko abenduaren 27an BOBen argitaratutako oinarrietan.

Hauek dira bertaratu diren epaimahaiko kideak: Leire Bilbao Barruetabeña, Jon Kortazar Uriarte eta Jon Imanol Gerediaga Goitia; Gonzalo Olabarria Villota, Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzia, epaimahaiburua eta Ane Toyos Elorriaga, sail horretako Administrazio Orokorreko teknikaria, idazkaria izanik.

Epaimahaiko kideek lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak irakurri dituzte eta, beharrezko deliberazioen ondoren, aho batez erabaki dute:

BAT.- Lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak onartzea eta baloratzea.

BI.- Blas de Otero - Ángela Figuera – Bilbo Uria Nazioarteko Poesia Lehiaketaren XV. edizioaren euskarazko modalitateko irabazle Juan Ramon Madariaga izendatzea *Beste piztia batzuk*¹ izeneko lanagatik.

¹ Autoreak argitaretzeko unean aldatu dio izenburua, eta *Bufalo guztiak* jarri dio.

AURKIBIDEA

Presente ezinezkoa	9
Beroaren oinarria	11
Ez diren kristalak	12
Irla bat	13
Aldaeren izakia	14
Ahanzturarik ez	15
Haragi freskoa	16
Eskrupulurik gabe	17
Azido desoxirribonukleiko	18
Liburuak eta pertsonak	19
Urtebetetzearen zeremonia	20
Errebelazioa	21
Hegaztien mugimendua	22
Pertsona bat	23
Argitu orduko	25
Azken mudantzak	27
Mudantzarako ondasunak	29
Saiatzeak	31
Maite duzun norbait	32
Imajinatzen ditugun animaliak	33
Egutegiko oharrak	34
Hegorik ez duen gizakia	35

Kolisioak	37
Etorkizunaren biolentzia	38
Mezua	39
Absolutu bat	41
Istripu indibiduala	42
Medikua	43
Beldur urdina	44
Akats partekatuak	45
Ez da inoiz gertatzen dena kontatzen	46
Errekopilazioa	47
Jaio eta hil	48
Aditz forma guztien bidez	49
Garbitzapena	51
Bozkario garaiak	53
Bozkario garaiak	55
Urtzaroak	56
Aldaketak	57
Zentzu guztietan	58
Ametsaren definizioa	59
Ireki ditut begiak	60
Zenbatu ahal duzuna	61
Beharrik gabe	62
Etorrerak	63
Esperoan bizi zara	64
Etorkizuna zuzentzeko deia	66
Soilgunea eta basoa	67
Mirarirako materia	69
Mirariaren teorema	71
Harrimena	72
Gauza askorekin bezala	73
Hartzeko neurriak	74
Lekuak eta ni	75
Flebotomia	77
Beste piztia batzuk	78

Lazeriak	79
Stanley eta Louise	80
Denbora egokitua	81
Telebistaren argia	82
Otsail hila	83
Urtarrilaren bata	84
Habia	85
Ikasi ditut desberdintasun sotilak	86

*Liburu hau
Itxaropenak inprimatu du,
AGaramond Pro hizki mota erabiliz,
2023ko urrian.*